



WEBGUNE IRISGARRIEN GARAPENA (1. aldia)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2018/2019

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 2 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 100 €

ARDURADUN AKADEMIKOA: **Néstor Garay Vitoria**

AURKEZPENA

Begiris Elkarteak bultzatutako ikastaro hau Web irisgarritasuneko konpetentzietan prestatzeko da. Bere helburua hau da: prestatu informatikako ikasleak eta profesionalak gaitasun anitzak dituzten pertsonen beharrekiko eta komunikazio modu berriekiko garapen egokituak egin ditzaten. Ikastaro honetan Web guneetako edukiak irisgarriagoak egiteko gomendioak aintzat hartzeko gaitasun teknikoak garatuko dira, horrela pertsona guztien partaidetza bultzatzeko. Prestatzeko saioak multimedia aurkezpenekin emango dira, eta praktika anitzak egingo dira eta foro eta elkarrizketa birtualekin osatuko da

PROGRAMA

I MODULUA. ESPARRU OROKORRA

- Kontzeptu eta Definizioak. Irisgarritasuna pertsona guztientzat eta bereziki desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Desgaitasuna duten pertsonak IKTen aurrean. IKTetarako sarbidea.
- Zergatik IKTetako irisgarritasuna.
- Laguntza teknikoak. IKTetara sarrera sistemak eta sailkapena.

II MODULUA. TEKNOLOGIA ETA IRISGARritASUNA

- Erabiltzaile-profilak eta giza-faktoreak IKTen aurrean.
- Guztiontzako Diseinua eta Erabiltzailean Zentratutako Diseinua.
- Weberako irisgarritasun gidalerroak. Weberako Irisgarritasun Ekimena (WAI).
- Irisgarritasunaren ikerketa eta analisia.



Ikasketaren edukiei dagokienez, hauek sartzen dira:

KONTZEPTUAK

- Desgaitasuna eta irisgarritasun hesiak Web edukien kudeaketa sistemetan.
- Laguntza teknikoak aplikazio eta gailuetan.
- Weberako irisgarritasun gidalerroak.

PROZEDURAK

- Webera iristeko gomendioen erabilpenaren gaineko hausnarketa.
- Hesi digitalak saihesteko ezagutza eraiki.
- Web irisgarri bat garatu.
- Irisgarritasuna egiaztatu.

JARRERAK

- Irisgarritasunaren gidalerroei buruzko ezagutza berriak eskuratzeko jakin-mina.
- Weberako irisgarritasun gidalerroak erabiltzearen abantailak baloratu.
- Gidalerroak erabiltzeko partaidetza aktiboa erakutsi.
- Teknologiaren eta komunikatzeko moduen aniztasunaren gaineko jakin-mina.

ZURE BILA GABILTZA

Informatikako formazioa duen jendea bilatzen dugu, irisgarritasunean eta laguntzeko teknologietan interesa dutenak eta giza aniztasunean, beren beharretan eta zaletasunetan sakondu nahi dutenak. Bereziki, Web guneetako garatzaileak beren proiektuetan erantsi nahi dutenak irisgarritasunaren ezagutzak irisgarritasunaren gomendioak kontutan hartuz.

UPV/EHUko ikasleek eta pertsonalak matrikula doan izango dute.

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaro hau egingo dutenek beste informatikako titulatu batzuen aurrean gaitasun gehigarriak izango dituzte. Adibidez, erabiltzailean oinarritutako garapena eta ko-diseinua, bai hardware eta baita software, aplikatzen jakingo dute.



Legedia, estandarrak eta irisgarritasunaren inguruko arrakastadun kasuak ere ikusiko dituzte, eta horrek bideratuko du beren garapenak populazioaren kopuru handiago batera iristea erakarriko du.

PRAKTIKAK

Ikastaroan zehar egingo diren praktikek balio dute ikasleek konpetentziak hobeto eskuratzeko. Ideia orokorra zera da: partaide bakoitzak eduki dezan gune bat ikasitakoa bertan aplikatzeko. Ez da behar Web gune bat martxan, baizik eta gune bat ikastaroan proposatzen diren praktikak egiteko, eta multimedia edukiak izan ditzala guneak.

BALDINTZAK

Informatikako edo antzeko arloko formazioa dutenak. UPV/EHU-ko Informatikako Fakultateko ikasleek edo profesionalek lehentasuna izango dute.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/10/15-etik 2018/10/26-ra

EMATEKO TOKIA: Ikastaroa%100ean online izango da, UPV/EHU-ko eGelaPI erabiliko da.

HIZKUNTZA: Gaztelania

IRAKASLEA: **Matías Sánchez Caballero. Telekomunikazio ingeniari teknikoa,** eta zenbait Master eginda. Ikusmen murriztua dauka.

Web gunea: www.webmati.es

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia Saila

HELBIDEA: Manuel Lardizabal pasealekua 1 (Donostia-**San Sebastián**)

TELEFONOA: 943 01 50 80

POSTA ELEKTRONIKOA: nestor.garay@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.